



Urkiolako Santutegia (Abadiño)

Urkiolako mendatea, Bizkaia eta Araba arteko mendi bidea, Kantauri alde honetako leku magikoenetakoa dugu. Dokumentaziorik ere ez dagoen garaitik, antzinatik hala ere, gurtuak dira bertan San Antonio Abadea eta San Antonio Paduakoa, bata animalien zaindaria, urtarilaren 17an jaia duena; besteak ekainaren 13an.

Inguruko mendi eta arroetan nahasten dira, gainera, sustrai sakoneko zenbait tradizio. Besteren artean, umeen eskaintza (beren pisua gariz, olioaz edo argizariz osatutako erreskate sinbolikoz), *urrixena* (soroen emankortasunarengatik esker ekintza) eta ezkonduen jaia, elizaren aurrean dagoen harri bitxi baten (meteoritoa delako ustea dago) inguruan bueltak emanik eskua eskatzearen tradizioa.

Multzoa

Urkiola izan da eta da eliza inguruan garai desberdinetan altxatutako eraikin multzo bat. Horien artean nabarmentzen dira errektorearen etxea edo *abadetxea*, erietxe zaharra eta ostatua. Hilerri bat, Gurutze bidea eta Kalbarioa, basiliza bi (Santa Apolonia eta Kristo Saindua) eta hainbat iturri ere daude inguruan, misterioz eta sinbolismoz beteriko ingurune bati dagozkien osagarriak.

Urkiolan gurtza izatearen jatorria antzinakoa da, Erdi-erokoak, baina ez dago garai hartako inongo lekukotasun fisiko edo dokumentalirik. Hala ere, jakin badakigu XVII. gizaldiko lehen erdialdean bertan beste tenplu xume bat izan zela, arkupeduna, eta erietxea erantsia zuela ere. Nahiz eta oso hondatuta, 1870era arte gorde zen. Urte horretan egungo kanpandorrea eraiki zuen Pedro Jose Astarbek, Durangoko obra maisuak.

XIX. gizaldiko krisi sozialen osteko Errestaurazioaren ondoren bizi zen berotasun erlijioso handiaren giroan Urkiolan 60 x 30 metrotako santutegi gaitza eraikitzea proiektatu zen. Azkenean, baina, proiektu hau ez zen gauzatu bere kostu handiagatik.

Gasteizko katedrala berriaren irizpide berberaz, orduko euskal barrutiaren burua baitzen, estilo neomediebala aukeratu zen eta, 1888-89an hasi ziren lanak Jose Maria Basterrak marraztu eta idatzitako oin-planta eta baldintzetan.

1928an gelditu egin ziren obrak, oinarritzkoan aurrera gehiago egingo ez zuelarik, eta egoera honetan sagaratu egin zen 1933 urtean. Beraz, gaur egun Urkiolako erdigunea osatzen duena eliza neomediebal handi amaigabea da dorre neoklasiko batez lagunduta.

Proiektuko eliza ondo nabarmentzen da: basilika formula bat, buru alde karratu etzana eta hiru nabe, askoz zabalago eta altuago handiena albokoak baino, hauek ibilbide modukoak gelditzen direla.

Buru aldea, lehen tartea eta behe nabe tartea bat gehiago soilik eraiki ziren. Ez atarikoak, santutegietan sinbolismo handia dutenak, ez harmaila bere alboetako 40 metroko dorre poligonal biek, ez ziren igaro zimentarrien mailatik. Oin aldea bortxatzen duen dorrea, zorionez, ez zen eraitsi.

Zaharberritze moderno batek piska bat leundu du eraikitako aldea erabili ahal izateko egin zen itxidura estalkiaren garratza. Honek ostiko eta euskarri oso latzak agertzen zituen. Alde hau da gaur egun buru aldea, koruak jatorrizko buru aldea hartzen duelarik.

Altzariak

Saindutegian kalitate eta jatorri desberdinetako objektu erlijioso eta profano biltzen joan da museo erlijioso eta etnografiko txiki bat osatzeraino. Bilduma hauek kontrastea egiten dute tenpluaren txirotasunarekin, agirietan agertzen denez hainbat sutez hondatua izan dena. San Antonio Abadearen eta San Antonio Paduakoaren tailak nabarmentzen dira, XVIII. gizaldikoak eta erroko estilokoak, beirategi moderno baten aurrean ikusgarri daudenak.

Gutziz Sainduaren kaperan badago beste San Anton erromanista bat, Amabirjina Haurrarekin eder baten estilokoa.

Testua: José Ángel Barrio Loza.



Urkiolako Santutegia

Abadiño. (*Durango-Otxandio errepidea. Urkiola gaina*).

Bisitak egiteko ordutegia:

Santutegia eguneko edozein ordutan bisita daiteke.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(*Abadiño*)

- Erietxe zaharra.
- Errektoretza.
- San Antonio ostatua.
- Santa Apolonia galtzada eta basiliza.
- Hilerria.
- Gurutze bidea.
- Kristo Sainduaren basiliza.
- Pol Pol-eko iturria.

